

UDAL-BATZARRA 8/06

UDAL-BATZARRAK, 2006ko ABENDUAREN 29an EGINDAKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia
M^o Carmen Egurza Salaberria
Mikel Zubillaga Galarraga
Nieves Alarcos Martinez
Jesus M^a Arsuaga Lizaso
Kepa De la Iglesia Sanchez

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETako Udaletxean, 2006ko abenduaren 29an iluntzeko zortziak eta laurdenak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ezohiko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez da etorri eta ez du arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- 2006KO URRIAREN 25 ETA AZAROAREN 13AN OSPATURIKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzak 2006ko urriaren 25 eta azaroaren 13an egindako bilkuren aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 25 de octubre y 13 de noviembre de 2006.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 361ETIK 461A BITARTE, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 361etik 461era, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 361 al 461, inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- 2006/02 KREDITU ALDAKETA, MOTA: KREDITU GEHIGARRIAK, ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak bertaratutakoei | El Sr. Alcalde manifiesta a los
ondorengo adierazten die: | presentes lo siguiente:
“2006/02 kreditu aldaketa, mota: kreditu gehigarriak” espedientea onartua izan zeneko dokumentazioa aurkezten da. Espediente honen arrazoia zera izan da: Aurrekontuan onarturiko zenbait partida, batzutan behar hainbateko diru kopururik ez eta bestetik 2006ko ibilbidean sartu diren zenbait gai berriei irteera emateko; konkretuki: - Kiroldegiaren azken ekipamenduak, bulegorako fotokopiadora berria, Herri Irakaskuntza Mankomunitarearen aldeko aportazioa handitzea, informazio prozesuetarako ekipa berriak erostea, “Añoetako baserriak” liburuaren publikazioa dela eta konsignaturiko gastua handitzea, Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako elkartearen likidazioa”

Udalbatza jakinaren gain geratu da, | El Pleno se da por enterado del
alkatetzak 2006ko abenduaren 27an | Decreto de alcaldía de fecha 27 de
ebazpen bidez onesturiko 2006/02 kreditu | diciembre de 2006 por el que se aprueba el
aldaketa, mota: kreditu gehigarriak | expediente de modificación de créditos nº
espedientea. Kapituloka ondorengo | 2/06 en la modalidad de créditos
laburpena izanik: | adicionales siendo el resumen del mismo
por capítulos:

KREDITUAK GEHITZEA/AUMENTO DE CREDITOS

Kapituluak Capítulos	Izena Denominación	Gehigarriak Aumentos
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan Gastos en bienes corrientes y servicios	4.500 euros
4	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	29.312 euros
6	Inbertsio errealak Inversiones reales	67.188 euros
GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AUMENTOS		101.000 euros

**FINANTZIATZEN DITUZTEN ERREKURTSOAK/RECURSOS QUE LOS
FINANCIAN**

Kapituluak Capítulos	Izena Denominación	Zenbatekoa Importe

4	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	7.122,00 euros
7	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	9.848,77 euros
8	Finantza aktiboak (Diruzaintzako geldikin) Activos financieros (Remanente de Tesoreria)	84.029,23 euros
GUZTIRA / TOTAL		101.000,00 euros

4.- TOKI AGENDA 21: ANOETAKO EKINTZA PLANA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2006ko abenduaren 21ean ospaturiko Ingurugiroko Batzorde Informatzaileak, "Toki Agenda 21: Anoetako ekintza plana"-ri buruzko diktamina ikusi ondoren.

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:

"Hemen proposazen dena da ekintza plana bat. Lehenengo diagnostiko bat egin zen. Diagnostiko hori onartua izan zen ekainaren lehen, hortik atera da ekintza plan bat eta plan hori osatzeko ezarrita zegoen ibilbide bat. Bilerak egin dira teknikoekin eta herriarekin ere, esan behar da herriaren aldetik partaidetza murrizta izan zela. Horrela, ekintza plana hori nolabait garatu da zazpi lerro estrategikoetan eta bakoitzak biltzen du hainbat puntu garatzen joan behar dugunak ondorengo lau urteetan. Ekintza plan honek posibilitatzen digu horrela Ernioalde Udaltalde 21 udal sarean sartzera eta honekin nolabait hainbat dirulaguntza espero dugu Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundiatik eskura izatea ekintza plan hau garatzen lagunduko digutenak. 2007 aurrikusita dago agenda eskolarra eta mobilitatearen inguruko plana hastera. Anoetako aurrekontuak posibilitatzen duten neurrian garatzen joango gara aipatzen diren ekintzak".

Ondoren, alkate jaunaren proposamenez aho atez 2006ko abenduaren 21ean Ingurugiroko Batzorde Informatzaileak ondoren proposaturiko onesten dute:

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Medio Ambiente de fecha 21 de diciembre de 2006 con relación a "Toki Agenda 21: Anoetako ekintza plana".

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

A continuación a propuesta del Sr. Alcalde se aprueba por unanimidad de los reunidos la propuesta dictaminada por la Comisión Informativa de Medio Ambiente de fecha 21 de diciembre de 2006 que dice como sigue:

Datozen lau urtetan jorraztekoa den Ekintza Plazan onartzea udalbatzan, horrela Udalsarean sartu ahal izateko, eta, jau dela medio, tokiko jasangarritasunarekin loturiko

beste egitasmoak abian jartzeko (Eskolako agenda 21, besteak beste), Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengoa adierazteko:		A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:
---	--	---

2.puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“375. dekretua, Abraham Olano kiroldegia inaguratu zeneko gastuen zerrenda dugu, 6000 euro. Esplikazio pixka bat nahi nuke, zeren, langile bat kontratatu dugunean ia ez dugu dirurik jende edo zerbitzu gehiago emateko herriari eta beste alde batetik inagurazio ekitaldi batean 6000 euro gastatzeko prest gaude.”

Alkateak erantzuten dio:

“Esplikazioa, Anoetako kiroldegi honek merezi du horrelako ekitaldi bat egitea, horrenbeste urte itxaron eta gero noizbait gauzatu da. Gauzatu eta gero beharrezkoa ikusi zen nolabait antolatzea herri guztiari ekitaldi ezberdinak emateko. Antolakuntza hori bermatzeko aurrekontutan zegoen kopuru bat aurrikusita eta kopuru horren zati bat hemen dago. Kiroldegia egiteko 400.000 euro inguru gastatu dira eta aurrekontu horrek Anoetako herria utzi du nolabait behartuta ondorengo urteetako inbertsio kopurua asko jeistea edo gutxi izatea baino horrek ez du esan nahi hemen gastatu diren 6000 euroak baldintzatzen duenik ondorengo Anoetako garapena”.

Bertaratutako batek dio:

“Kiroldegia egiten bada herriari zerbitzu bat emateko da eta zerbitzu hori eskeintzeko. Uste dut, aurrekontutan 12000 euroko dirukopuru bat zegoen langile batentzako. Guk uste dugu inagurazio gastuetatik ken genezakela eta horrekin zerbitzu bat herriari eskeini”.

Alkateak erantzuten dio:

“Bi kontzeptu ezberdin dira, bada pertsonaren gastua eta bestea inagurazio ekitaldiko ekintzak. Kiroldegiak hasiera bat behar zuen eta eman zaio. Ondoren egin diren iradokizunak ere burutan ditugu, aztertzen ari gara eta nolabait garatzen goazen neurrian edo denbora aurrera dihoan neurrian zerbitzu horrek berak eskatzen dituen berrikuntzak egoki direnak eta posible direnak emango dira. Ekitaldia egin zen nahiko era xumean eta era atsegingarri batean eta gastatu zen kopuru guztia luparekin begiratuta”.

Bertaratutako batek dio:

“Nik uste dut kiroldegiak nahiko atzerapen eman duela, ia hiru urte terdi izan dugu hori aurrera ateratzeko. Gestioa ere denbora asko, asko, egon da pentsatzeko eta uste dut orain ematen den gestioa pertsonalki eta herritar askoren ustez oso txarra da. Bestalde, 418, dekretua, Ipuin lehiaketako gastuak 3600 eurotakoak dira, aklaratzeari nahi nuke”.

Alkateak erantzuten dio:

“Aurten, Kultur batzordearen barruan landu zen idei hori ipuin-marrazki lehiaketarena. Bi helburu zituen eta nik uste guztiz asetuta geratu direla helburu horiek eta esango nuke aurrera jarraitzeko gogoarekin geratu dela gaia. Helburu horiek izan dira batetik herriko haurretan zegoen trebetasuna mahai gainean jartzea, ezagutzera ematea bai Ikastola bertan eta baita ere herrian. Liburuxka batean argitaratu dira irabazle geratu diren haurren ipuinak eta beste alde batetik irakurzaletasuna areagotzeko saiakera bat bidean jartzea. Ikastolako haurrek oso pozik irakurtzen dituzte ipuin horiek eta irakurtzea alegintzen diren neurrian hori da irakurzaletasun hori areagotzen duen ekimena. Hortik 3.800 eurotako kontu hori, liburuxka hori egiteko aurrakusi zen.

Beste bertaratutako batek dio:

“Ala ere gastu hauen zehaztapenak nondik norakoak diren jakin nahi nuke”.

Alkateak erantzuten dio:

“Herritar bezela nahi duzunean etorri Nekanerena ikustera. Aurrekontuak publikoak dira eta berak erakutsiko dizkizu; adostu egun bat”.

4.puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Proposamena oso ona iruditzen zait, gauza asko dago egiteko baina jakin nahi nukena da zenbateko gogoarekin hartuko dugun hau. Nik adibide txiki bat, saila ezberdinetan baina uste dut dena uztartuta dagoela; alde batetik AHT eragina nekazaritza sektoreko aktibitatean etekina ez sortzeko, zein neurri hartu daitezkeen aztertu. Beste alde batetik, AHT proiektuaren inguruko informazio eta komunikazio zabal, garbi eta ulerterraza eskatu eta bideratu, alderdi ezberdinetan, nekazaritza, paisai, biodibertsitatea, gizartean izango dituen eraginak ezagutaraziz. Herriko une natural interesgarriak identifikatu eta ezagutzera emanez gain, naturgune babesba bermatu. Azkenekoa Basagaiekin uzatartuko nuke. AHTri buruz ez daukagu inongo informaziorik, zuk ukatzen duzu hemen ailegatu denik, nik nahiko lan badut sinisten eta gero hor parte hartze zabal horiei buruz, nik oraindik ez ditut ikusi. Gogoratzen naiz Joxe M^a alkate zenean zuen kiden den Rafelekin hitzaldi bat egin zen Udaletxean bi aldetatik, proiektuaren alde eta aurka zeudenak. Nik uste dut erantzun oso zabala izan zuela eta nik alde horretatik ez dut inongo erantzunik ikusi gai zehatz honi buruz. Hemen dena oso polita gelditzen da baina gero jakin behar da benetan ze borondate daukazuen gauza hauek aurrera eramateko”.

Alkateak erantzuten dio:

“Momentuz, AHTaren inguruan daukagun informazioa aipatu dugu, dagoena dago, ez dugu proiekturik ez dugu trazatu zehatzik momentu honetan Anoetari dagokionez. Gauzatzen dihoan neurrian eta etortzen den neurrian jakinaraziko zaio herriari inolako dudarik gabe. Ez dago inolako beharrik ezer ezkatutzeko gauzak argi eta garbi emango dira. Ekintza planean aipatzen den AHT buruz nekazaritzan, ahalik eta afekzio gutxien aktibitateari egiten saiatuko gara noski, dakigunean zehatz-mehatz nondik eta nola geratzen den. Proiektua interes orokorrekoa da eta ez dago udalaren eskumenetan proiektu hori gauzatu edo ez. Afekzioa ahalik eta gutxien izaten, eta badago, ordezko edo dena delakoaren erantzun egoki bat ematen saiatuko gara.

Bertaratutako batek dio:

“Beste alde batetik, biztanleriaren ongizatea eta bizi kalitatearen hobekuntza solidarioa sustatu. Aurkezturiko dokumentazioan herritarrek etorkizunera begira zenbat eta nola hazi behar duen ausnartzeko, eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazio modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu. Honetaz, ni ez banago gaizki informatuta, hasi zineten Lasarbe proiektua sustatzekotan. Dakidala nik ez dut inongo bilera ikusi hauek ausnartzeko, jakin nahi dut, lehen esan dudana, ze borondate gogoz ari garen, paperean oso polita baina borondatea ikusi beharra dago”.

Alkateak erantzuten dio:

“Lasarberen inguruan, une honetaraino heman diren pausoak, eremu konkretua da, zuk dakizun bezala, eta eremu konkretu honetan hasi “avance”tik eta gaur gauden puntura arte, eman diren pauso guztiak publikoak izan dira eta partehartzeko hirigintza batzordeetan dokumentu bakoitzak izan du bere lekua. Aurreko legislaturan berriz “avance”ko dokumentua, inkluso tragatu egin zen, eta lehenengo aprobaziora eman zen zuzenean eta Jose Ignaziok esango dizu, hirigintza batzorde batean ere landugabeko gaia. Justu eman zen lehenengo aprobazio inizialera.”.

Bertaratutako batek dio:

“Azkena komentatu duzuna aspaldi esan zenuen. Askotan esan dizut, beste pertsona batzuk egin zutela; prest gaudela edozein momentuan hitz egiteko eta pertsona horiek, mesedez, aspertuta daude zuen komentarioak entzuten. Zuk badakizu nola tramitatzen den? Legala da ala ez egin zena? erantzun mesedez”.

Jose Ignazio Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Batzordetik pasa gabe zuzenean plenora eramatea? posible da, gauza batzuk legalak izatea baina ez da bide normala. Inori ezer galdetu gabe ekartzea, posible da, legala da? Legala da, ez da bide normala”.

Bertaratutako batek dio:

“Bestalde, udalerriko sarean ur-galera zenbatekoa den jakin eta miminoak izan daitezten neurriak hartu eta, era berean, uraren erabilpen optimoena egiten den aztertu, hala ez balitz, neurriak hartzeko. Nik ez dakit, igual konfundituta nago baina ez al zenuten enkargatu horri buruzko txosten bat, emaitzik badaude?”

Alkateak erantzuten dio:

“Txostena ez dago enkargatua, gaizki ulerturen bat ez badago. Duduk ez egiten ari garela segimendu bat. Momentu honetan Ur Kontsorzioak datuak eskuratzeko bere baliabidea jartzen ari da eta momentu batetik bestera edukiko ditugu baliabide horiek kontrastatuta. Anoetako ur-sarean zenbat ur galtzen den, ez da hain erraza eta honetan dabil Ur-Kontsorzioa”.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilera, iluntzeko bederatzia direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak fede ematen dudalarik.